

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak hiru talde nagusitan bereizten dira: alde batetik lan egin behar duten gurasoak edota udaran haien seme-alabak utziko dizkigutenak aurki ditzakegu (egitazko kontsumitzaileak seme alabak badira ere); bestetik, elikadura ekologiko eta arduratsu bat jarraitu nahi duten pertsonak eta azkenik autokarabanan bidaiatzen dutenak. Era berean, azken bezero hauek, bezero zuzenak izateaz gain, eskeintzen ditugun beste zerbitzuetarako bezero potentzialak dira.

Beraz, gure merkatua, dibertsifikatutako merkatua izango da, eta hiru arlotan jardungo dugu: lehenengoa haurtxoko zerbitzua (bai udalekukoak bai urtean zehar etorritakoak), bigarrena sukaldaritza eta azkena, oporrak pasatzeko egonaldia (autokarabanak). Era berean, hiru arloetako bezeroek ezaugarri komun bat dute: haietako askok tailerrak jasoko dituzte.

